

WITH A LITTLE HELP FROM MY FRIENDS

**GOITIZENA:
F. GORDILLO**

Pertsonaiak:

Mikel

Kepa

Marta

Esther

(Lau pertsonaiek 30-35 bat urte dituzte.)

Bestelako soinu eta ahotsak

(Taberna baten zarata entzungo da.) **MIKEL.-**

Kaxo, Kepa.

KEPA.- Epa, Mikel. Zemouzu? Zeozer nahi? **MIKEL.-**

Ez, kafea eskatu diat.

KEPA.- A, egia... kaña bat mesedez!

ZERBITZARIA.- Berehala.

KEPA.- Denbora asko daramak zain? **MIKEL.-** Keba.

Aterako gaituk erretzea, bale?

KEPA.- Fale.

(Biak kalera nola irteten diren entzungo dugu, tabernaren zarata baretuz. Kotxe gutxi batzuk zeharkatzen ari dira kalea.)

KEPA.- Eta esan ba, zer da hori horren garrantzitsua? **MIKEL.-**

Bueno, nola esan...

KEPA.- Dena ondo doa? Martarekin ondo? Ze ez nauk pertsona aproposena maitasun aholkuak emateko...

MIKEL.- *(Etenez.)* Surik?

KEPA.- Bai, tori.

MIKEL.- Mila esker.

KEPA.- Eta?

MIKEL.- *(Zigarroa piztu ondoren kea nola botatzen duen entzun dezakegu.)*

Unai hil diat.

KEPA.- *(Barrez hasiko da.)* Hoa popatik hartzera! *(Etena.)* Ez diat sekula ulertu nondik datorkian hire umore beltza. *(Etena.)* Serio?

MIKEL.- Bai.

KEPA.- *(Irribarre izoztuaz.)* Nola izan da?

MIKEL.- Kotxeaz.

KEPA.- (*Garagardo trago nabarmena egiten du.*) Noiz, ba?

MIKEL.- Atzo.

KEPA.- Istripua izan duk...

MIKEL.- Ez, keba, ez zuan istripua izan, propio harrapatu nian. (*Keparen urduritasuna eta harridura entzungo da.*) Behin eta birritan pasatu nian autoa gainetik hilda zegoela ziurtatzeko.

KEPA.- Txantxa duk, ezta?

MIKEL.- Odoleztatutako ile xerlo batzuk ekarri dizkiat. Hartu itzak. **KEPA.-** A, kendu hori paretik, Dios. Erotu al haiz?

MIKEL.- Ez, eroa ematen diat, ala?

(*Isilunea. Garagardoa hustuz, arnasa sakon hartu eta botatzen du.*)

KEPA.- Eta... zer dio Martak? Zoratzen egongo duk...

MIKEL.- Ez zakik ezer.

KEPA.- Nola, ba? Unai akabatu eta ez duk ohartu ere egin. **MIKEL.-** Alde egin duela esan zioat.

KEPA.- Eta berak sinistu? Non daude bere arrastoak? **MIKEL.-** Lurperatu ditiat... lorategian.

KEPA.- Baina, baina... uste duk Marta geldirik egongo dela Unai alde egin duela jakinik? Ez duela galderarik egingo?

MIKEL.- Lasai, egia deskubrituko dik... loreak landatzera joaten denean. **KEPA.-** Kagüenzotz! Alkohol gehio behar diat. (*Étena, arnasestuka.*) Baina, zergatik egin duk?

MIKEL.- Ez zakiat, bera... jasanezina zuan azkeneko asteetan... egiten zian zarata, zerioan kiratsa... eta puntu batera heldu ninduan... barne bulkada edo izan zuan...

KEPA.- (*Ozen.*) Unai zela!

MIKEL.- Eta?

KEPA.- Martaren lagun fidela.

MIKEL.- Eta? Iguar horregatik, txakur bat besterik ez zuan, azken finean.

KEPA.- Benetan erotu haiz.

(Kotxe batzuen klaxona entzungo da eta gidari haserre batzuen oihuak.)

KEPA.- Ezin diat hire aurpegia jasan. **MIKEL.-** Unai

hire oparia izan zuan, ezta?

KEPA.- Kontua ordainduko diat. Beste zerbait nahi? **MIKEL.-** Ta

Martak erruz eskertu.

(Arnasestu urduriak entzungo dira.)

KEPA.- Sentitzen diat, baina komisarian jarriko diat salaketa. **MIKEL.-** Zer izan zen

lehenengo? Unai oparitzea edota oheratzea?

KEPA.- Marroi polita, nola azalduko duk txakurrarena poliziaren aurrean? **MIKEL.-** Non zen?

Hotelean ala etxean? Behintzat, geure ohean ez oheratzeko duintasuna izango zenuten...

KEPA.- Agian ez haiz zulora joango, baina isun latza jarriko diate. **MIKEL.-** Etxean, noski.

Ikusten diat lotsa izpirik ez zenutela... geure ohean.

KEPA.- Eta? *(Etena.)* Hik abandonatu huen Marta... hilabeteak agertu gabe, deitu gabe... negarrez eta kexaka etortzen zuan nigana. Uste nian txakurkumea opari polita izango zela “mimoak” emateko.

(Tabernatik atera edo sartzen ari diren barre hotsak.)

MIKEL.- Ezingo huke kotxeaz harrapatu dudala frogatu.

KEPA.- Gauza batek bestera eraman zian, “mimoak” Martari neuk eman arte...

MIKEL.- Zer poliziak sinetsiko luke Unai lorategian ehortzi dudala? Lan gehiegi txakur batengatik...

KEPA.- Baina hi berriro agertu eta berehala utzi genioan elkar ikusteari. **MIKEL.-** YA.

(Etena.) YA, YA. *(Etena.)* Orain errugabea haiz.

KEPA.- Ez diat hori esan.

(Txakur baten zaunka entzungo da urrutian.) **KEPA.-** Unai?

(Zaunka berriro ere.) Unai da?

MIKEL.- *(Axolagabe.)* A, bai. Martarekin zegoan bueltatxo bat ematen...

hemen geratuak ginela esan zioat.

(Keparen arnasestuak.)

KEPA.- Trikimailu nazkagarria.

(Isilunea.)

MIKEL.- Beste kaña bat?

KEPA.- *(Duda-mudatan.)* E... bai... jakina.

(Marta eta Esther museoan, XX. mendeko obrak ikusten. Musika klasikoa entzun daiteke, edota dentistarenean entzuten diren abesti gatzgabeak.)

ESTHER.- Marta, ikusten dun artistaren autorretratua? **MARTA.-**

Hori al da autorretratua, Esther?

ESTHER.- *Art Brut* mugimenduaren barruan sailkatu zinan bere burua. **MARTA.-** *Art Brut*, e? Astakilo galanta omen zunan, beraz.

ESTHER.- Ez, ez dun hori. Berak izen hori jarri zionan arte mundutik at zegonan jendearen artelanak deskribatzeko. *Brut-ek* gordina esan nahi din, kutsatu gabeko artelana.

MARTA.- A. Eta nola esan dun duela izena?

ESTHER.- Dubuffet. Jean Dubuffet. Adimen-urritasuneko gaixoek sortutako artelanak ikusi eta horietan inspiratuta egiten zitinan bereak.

MARTA.- Alajaina. Orain ulertzen dinat autorretratuan duen ero itxura. **ESTHER.-** Ai, Marta...

MARTA.- Zer Esther? Badakin ez ditudala museoak atsegin.

ESTHER.- Disimulatu hezakeen, behintzat. Ez haiz abokatu? Abokatuek gezurrak esaten zakiten.

MARTA.- Bai, zera!

ESTHER.- En fin...

(*Isilunea.*)

MARTA.- Zer esan du Kepak?

ESTHER.- Kepa?

MARTA.- Hire gizona...

ESTHER.- Zer ikusirik du Kepak Jean Dubuffetekin? **MARTA.-**

Ez, neska. Haurrari buruz.

ESTHER.- A. (*Etenez.*) Begira hori! Cindy Sherman bat! **MARTA.-** Ez dion ezer esan, ezta?

ESTHER.- Shermanek bere irudia erabiltzen din argazkietan; hori baliatzen din, emakumeak gizartean duen rolaren inguruan hausnarketa egiteko. **MARTA.-** Bai, jakina, eta zein da hire rola bikote erlazioan, mutilari haurdunaldia ezkutatu behar badion?

(Isilunea.)

ESTHER.- Nire gorputza dun...

MARTA.- Jakina.

ESTHER.- Haurra izatea edo ez nire erabakia dun, nire rola ez dun Keparen iritzien menpe bizitzea.

MARTA.- Dena den, urte asko daramatzazue elkarrekin eta Kepa hire erabakiaren berri izatea ez legoken gaizki.

ESTHER.- Jendarte matxistaren diskurtsoa.

MARTA.- Ez dun hori... Esther.

(Isilunea. Haien pausoak entzungo dira)

MARTA.- *(Koadro bat ikusiz elkarrizketa lasaitu nahian.)* Andy Warhol bat da hori?

ESTHER.- Ez, Rauschenberg bat.

MARTA.- *(Tonu gozoz.)* Ez hadi haserretu, lagunak gaitun. **ESTHER.-** *(Negarrez.)* Ez zakinat Keparen haurrik izan nahi dudan.

MARTA.- Esther! Hori al zen? *(Kontsolatu nahian.)* Lasai, emakumea, ez zakinat zergatik egiten didan kasu... hartzen dudan erabakia zuzena izango dun. Bai haurra edukitzearena, baita ezer ez kontatzea Kepari ere.

ESTHER.- Begira...

MARTA.- Zer?

ESTHER.- Koadro hura, ez nekinan hemen zutenik...

MARTA.- Pentsatu lasai eta ez bueltarik eman. **ESTHER.-** Max Beckmann-ek egin zinan 1936. urtean. **MARTA.-** Goazeman kafea hartzera.

ESTHER.- *Amatasuna* din izena. Baina ez dun koadro baikorra, latzak ditun

trazua eta koloreak

MARTA.- Esther...

ESTHER.- Bai, arrazoa dun, kafetegi berria ireki ditene hor parean. Neuk ordainduko dinat askaria.

(Supermerkatua. Produktuen eskaintza bereziak iragartzen dituen ahotsa entzun daiteke; halaber, bezeroak haien orgatxoekin bueltaka.)

OFF AHOTSA.- Gaur, izoztuen sailean, leka berde poltsa 2,55 eurotan. Eta gogoratu, seinalatutako produktuetan: bi erosiz gero, hirugarren alea doan.

MIKEL.- (Bere buruari.) Non ostias egongo duk txakurraren janari kaka hori? Ez nekian horrenbeste marka zegoenik: bitamina, zuntza eta proteinekin; koloratzaile eta azukrerik gabea... Ostias! Eta ze prezioak! Ba, hau hartuko diat... merkeena. (Beste orga batek berearekin egingo du talka.) Hi, ibili hadi kontuz, ostias! Non ditun begiak, neska!

ESTHER.- Barkatu, ez zaitut... Mikel?

MIKEL.- Ai, Esther? Barkatu... ez zaitut ezagutu... astapotroz eta inutilez gainezka dago supermerkatua.

ESTHER.- Lasai, konturatu naiz, bai.

MIKEL.- Eta, zertan zabilta? **ESTHER.-**

Erosketak egiten.

MIKEL.- A, bai, bai, jakina. (Bere buruari.) Hi bai baboa! **ESTHER.-** Eta zu? Non utzi duzu Marta?

MIKEL.- Ileapaindegian, eta nik bitartean Unairentzat pentsu bila. **ESTHER.-** Ba, uste dut ez duela hori hartzen.

MIKEL.- Ez?

ESTHER.- Han dagoen poltsa beltz hura eraman ohi du Martak.

MIKEL.- Baina hirukoitza balio du horrek eta! A ze mutur fina txakurtxo putak! Apetatsua benetan!

OFF AHOTSA.- Gaur, geure harategian, oilasko bularkiak 6,55 eurotan kiloak. Gaur, geure harategian, oilasko bularkiak 6,55 eurotan kiloak.

ESTHER.- Hara! Zein ongi! **MIKEL.-**

Bularrak merke egotea?

ESTHER.- E? Ez, horrela, ustekabeen elkarrekin topo egitea. **MIKEL.-** (*Bere buruari.*) Idiota, idiota, idiota. (*Estherri*) A, zorionak!

ESTHER.- Zer ba?

MIKEL.- Haurrarengatik.

ESTHER.- Azkar zabaltzen dira berriak.

MIKEL.- Beno, Martak esan zidan...

ESTHER.- Bai, jakina.

MIKEL.- Eta zer dio aitatzok? Ez dut oraindik Keparekin hitz egiteko aukerarik izan.

ESTHER.- Ez dakit... mozkortzera joan zen kontatu nionean... ez dakit ospatzeko edo penak uxatzeko...

MIKEL.- (*Kontatutakoa gehiegi puztu duela adierazi nahian.*) Emakumea...

ESTHER.- Lanera joan beharra daukat.

MIKEL.- (*Atsegina izan nahian.*) Eta zer esan dizute han?

ESTHER.- Galerian? Ba, beste pertsona bat bilatuko dutela behin baja hartuta.

MIKEL.- Zu ordezkatzeko, noski.

ESTHER.- Nire lanpostua kentzeko.

MIKEL.- Baina ezin dute hori egin. Gainera, oso emakume azkarra zara, ona benetan zure lanean, ezinbestekoa.

ESTHER.- (*Irribarre zinikoaz.*) Gauza asko egin ditzakete, oso argi utzi didate hori... eta negoziatzen ari naiz...

MIKEL.- Ze, putada! (*Bere buruari.*) Joder, Mikel, hanka sartze galanta, e! (*Estherri.*) Behintzat, zure koadroetara bueltatu ahalko zara... nahiko abandonatua zenuen azkenaldian, ezta?

ESTHER.- Haur batekin etxean? Jai daukat, ez duzu uste? **MIKEL.-** A, barkatu.

ESTHER.- Eta zuk ez duzu ezer aurkitu?

MIKEL.- Keba, eskerrak Marta funtzionarioa den, bestela...

ESTHER.- Bere bizkar bizita, ederki.

MIKEL.- Ez nuen hori esan nahi. **ESTHER.-**

Bai, badakit.

(Haur bat negarrez entzungo da haien ondotik pasatzen.)

MIKEL.- *(Hanka sartzeak alde batera uzteko, atsegina izaten saiatuko da. Baina ez daki egiten.)* Esan al dizute inoiz haurdun zaudeten emakumeak oso guapak zaudetela?

ESTHER.- *(Ez duela ongi ulertu.)* Zer? Zer esan nahi duzu?

MIKEL.- Ba, hori. Baduzuela zerbait berezia, nik beti tripa ikusten dudanean, badakit zuk oraindik ez duzula, baina emakume haurdun baten tripa ikusten dudanean... beti izaten dut besarkatzeko gogoak...

ESTHER.- *(Ozen.)* Txerri halakoa!

MIKEL.- *(Ahapeka.)* Ez, ez, amatasunak gizonongan eragiten duen zerbait omen da, irakurri dut...

ESTHER.- Patetikoa haizela konturatu haiz? Gainera, hire emaztearen lagun minarekin ligatu nahian... edo, egunero ari haiz neskatan supermerkatuan? **MIKEL.-** Joder, barkatu, burua joan zait, ez nuen...

ESTHER.- Utzi bakean.

MIKEL.- Benetan, barkatu.

ESTHER.- Gizonok nazkagarriak zarete, beti ama galduaren bila. **MIKEL.-** Baina, hitz goxoak ziren...

ESTHER.- Hoa pikutara! *(Badoala orga mugituz.)* Aio.

MIKEL.- Aio, bai. *(Bere buruari.)* Kakazaharra.

ESTHER.- *(Bueltatuz.)* A, eta duela hiru egun galdu nuela umea. Hi haiz jakiten lehenengoa. Bejondeiala, Mikel! Baina ezta okurritu ere inori kontatzea... *(Badoa.)*

MIKEL.- *(Bere buruari.)* Joder, Mikel. Bai enkontru absurdoa. **OFF**

AHOTSA.- Gaur mortadela eskaintza berezia...

-IV-

(Marta eta Kepa ohean. Larrua jotzearen azkeneko arnasestuak entzungo dira.)

KEPA.- *(Hasperen sakona egin ondoren.)* A, uf, Marta, ongi egon dun, e? **MARTA.-** *(Ez horren hunkituta.)* Tabakorik baduk?

KEPA.- Bai, bai, uste dinat, a, begira... praktetan... Horrenbeste hilabete elkarrekin txortan egin gabe...

MARTA.- Eta sua?

KEPA.- Bai, barkatu. Non dago txiskeroa, a, hemen... Mikel bueltatu zenetik ez gaitun egon...

MARTA.- *(Zigarroaren kea bota ondoren.)* Koltxoia aldatu duzue.

KEPA.- Bai, Esther burugogor jarri zunan, artista batek deskantsatu behar omen din inspirazioa lortzeko.

MARTA.- Uste nian marihuana eta gaupasen artean sortzen zutela artistok. **KEPA.-** Agian bai. *(Isilunea.)*

MARTA.- Bereak dira paretetako koadroak?

KEPA.- Ez, ez, artista gazte batenak omen ditun; galeriatik kendu behar zitiztenan eta Estherrek erosi. Argazki manipulatuak ditun, Warholen monotipien antzera. *(Martaren algarek hasiera batean harritzen badute ere, orduan bera ere barre artean hitz egingo du.)* Bai, bazakinat denek zakilak irudikatzen dituztela...

MARTA.- Ez nauk ohartu, ez...

KEPA.- Artistaren zikiratzea irudikatzen omen diten, photoshop eta internet nagusitu den garai honetan.

MARTA.- Uste diat Martak aurrekoan zeozer aipatu zuela koadro hauei buruz.

(Bion barrea aþur bat baretuz joan den heinean, serioago hitz egingo du Martak.)

MARTA.- Eta zein izen jarriko diozue? **KEPA.-**

Koadroei?

MARTA.- Haurrari. Bazakiat goizegi dela baina...

KEPA.- Mutila badun... Pablo...

MARTA.- Ez zenuten izen euskaldunagorik aukeratzeko... garai hauetan...

KEPA.- Bai... baina Pablo Picassorengatik jarri nahi zion Estherrek...

MARTA.- Hori baduk arrazoia... hobe, Jorge... Jorge Oteiza. Eta neska bada? *(Barrezka berriro ere.)*

Frida... Kahlo? Ez, ez hobeto Yoko... O-no? Edo-ez? **KEPA.-** Ez, Marta jarriko zionagu.

MARTA.- *(Barre egiteari utzi diola supituki.)* Txantxa gutxi nirekin gero! Benetan ari haiz? Bai? Hire ideia izan duk, ziur nagok.

KEPA.- *(Burlati.)* Ez, Estherrena... Marta Graham dantzariarengatik. **MARTA.-** Hire neska bezain txirriporroa haiz!

KEPA.- A, ez, neska ez... EMAZTEA; egun batzuk barru eskatuko zionat nirekin ezkontzeko.

MARTA.- Zer diok?

KEPA.- Ez haiz guregatik pozten?

(Martaren hortzen karraska entzungo dugu.)

MARTA.- Kuriosoa zinez, hire “emaztearen” haurdunaldiaren berri jakin eta berehala deitu izana. Ezkontzeko eskatu baino egun batzuk lehenago hirekin oheratzeko deitu izana. Kuriosoa.

KEPA.- Kexa baduk, kontuan izan hi etorri haizela arrapaladan inork behartu gabe.

MARTA.- Hala duk, bai. Garai zaharrak gogoratzearren eta... azkeneko aldia dela esateko.

KEPA.- A, beraz, txortan egin behar huen ni agurtzeko. **MARTA.-**

Hoa porkulo hartzera!

KEPA.- Sadoa hirekin? Nahi dunanean...

MARTA.- (*Jaikiko da eta arropa jantziz.*) Non dago?

KEPA.- (*Lasai, lasai mugitu ez dela.*) Bularretakoaren bila bahabil, pasioan komun alderantz bota dun.

MARTA.- (*Nazkaz.*) Buff!

KEPA.- Marta, azkeneko musua alde egin aurretik?

MARTA.- Bai, zera! (*Badoala.*)

KEPA.- Hurrengoan hotel batera joango gaitun. **MARTA.-**

Hi pitzatuta hago.

-v-

(Esther eta Keparen etxea. Geure lau lagunak afaltzen ari direla, plater eta sardexken hotsa entzun daiteke; lagun giroan daude eta ardo botila batzuk hustu dituzte)

KEPA.- Bapo!

MIKEL.- Gozoa benetan, Esther!

ESTHER.- Kepak dik meritua...

MIKEL.- Buen menú, señor. A, zorionak Kepa, ba. **ESTHER.-** Bai, berak deitu dik catering-era dena eskatzeko.

(Martak barre egingo du.)

KEPA.- *(Korrok eginez.)* Ez, maitea, hirea dun meritua; heuk prestatu ditun platerak janaria aurkezteko.

(Martak berriro barre egingo du.)

MARTA.- Barkatu, uste diat ardo gehiegi edan dudala. **MIKEL.-** Ez da izango?

(Martak, burlati, aho-puzkerra egingo dio Mikeli.)

MIKEL.- Badakizue Unai salduko dugula?

(Kepa indarrez eztulka hasiko da.)

ESTHER.- *(Bizkarrean kolpeak ematen dizkiola.)* Ongi al hago, Kepa?

MIKEL.- Ez da birikeriaren bat izango?

KEPA.- Ez, lasai, uste diat kontrako eztarritik joan zaidala. **MIKEL.-** Lastima.

ESTHER.- Edan ur pixkat. Hobeto?

KEPA.- Bai, bai.

ESTHER.- Eta nolatan, Marta? Unai maitea saldu? **MIKEL.-** *(Estherri.)*

Ez zaizkion sekula txakurrak gustatu.

KEPA.- A, ez?

MIKEL.- (*Kepari.*) Ez, txikitako lagun batek oparitu eta itsuskeria ez egiteagatik mantendu genian etxean.

KEPA.- Ze jatorrak!

ESTHER.- Ba nik maitasuna hartu niola txakurrari...

(*Oraingoan Mikelek barre egingo du, Pintto Pintto isilean kantatzen duen bitartean.*)

MARTA.- Bai, baina hobe dun lehenbailehen alde batera uztea; bestela ez lidaken proiektu berriak egiten utziko.

MIKEL.- Proiektu berriak ditun, ala?

MARTA.- Ba, bai. Agian bidaia luzea edota abokatu-langela propioa irekitzea.

MIKEL/KEPA.- Hara!

ESTHER.- (*Txalo txikiak joz.*) A ze ongi!

KEPA.- Esther, badakin Martak oso gustuko dituela geure logelako zakilak?

ESTHER.- A, bai?

MIKEL.- Zakilak?

MARTA.- Hor dauden artelanak.

ESTHER.- (*Poz-pozik.*) Benetan, Marta? Kepak erreparo handiak jarri zitinan jartzerako garaian, baina azkenean lortu ninan Maoren zakilak geure logelan eskegitzea.

KEPA.- (*Barrezka.*) Maoren zakilak? **MIKEL.-** Eta

noiz ikusi dun hori, Marta?

ESTHER.- Artista... Mao Yei ezizenaz ezagunagoa.

MARTA.- Lehen han utzi ditiagu berokiak, Mikel, ez duk gogoan? **KEPA.-** Esther, eta

zein da artistaren benetako izena? Fidel Castro?

MIKEL.- Ba ni ez naun konturatu, egia esan; ez dinat hi bezainbeste arreta jartzen zakiletan.

ESTHER.- Maiz hitz egin diat horren inguruan, Kepa. Rebeca García de Albeniz da artista.

KEPA.- (*Barrez lehertzen.*) Mao Yei artista emakume espainola dela? Eta

zakilak norenak dira?

MIKEL.- Agian bere txakurrarenak.

(Bi mutilak, gehiago ezin dutela, barrezka hasiko dira eta Pintto, Pintto ozen kantatzen.)

KEPA/MIKEL.- Zuri beltza da ta, ez du koska egiten, zakiltzarra dauka jolastu nahi badun.

ESTHER.- *(Kepari abestia moztuz.)* Hireak ez dituk argazkiak, ez. Ezinezkoa. **KEPA.-** *(Minduta.)* E, zer esan nahi dun?

MARTA.- *(Barrez.)* Bere mutil-lagun ohienak dituk. Utzi baino lehen guztiei ateratako argazkiak.

MIKEL.- Eta hik nola dakin hori?

ESTHER.- Galerian ditugun artistei buruz hitz egiten zioat beti, baina beti uste izan diat ez zidala kasurik egiten.

MARTA.- Bai, bai, kasu egiten dinat. Ez ahaztu museotara laguntzen dinadala eta hire txapa guztiak jasaten ditudala. Minimalismoa baino gauza aspergarriagorik ez zagon.

ESTHER.- Benetako laguna haiz.

(Biek elkarri besarkada emango diote; Esther hunkituta, erdi negarrez dago.)

KEPA.- Zein polita! Lagun minak elkarri sekretu guztiak kontatzen!

MIKEL.- *(Mingaina trabatzen zaiola.)* Bai, bai. Tronpa egingo dugu... e...
topa?

KEPA.- BAIII! *(Imitatuz.)* Tron-pa!

MARTA.- Ongi. Baina zutik egingo diagu... *(Estropezu egingo du modu zaratatsuan.)* ...nire azken tragoa izango duk gaurkoz.

MIKEL.- Bai, horixe; ea kapaza haizen zutik mantentzeko,

(Martak aho-puzkerra egingo dio berriro Mikeli.)

ESTHER.- Itxaron, itxaron, itxaron, kopak beteko ditiat. *(Kopak betetzearen soinua entzungo dugu.)* Hiretzat, hiretzat, hiretzat ez, baietz... eta hau niretzat... kar, kar, kar... Eta zergatik egingo dugu topa?

MIKEL.- *(Maltzur.)* Haurrarengatik?

KEPA.- Oi, Esther, ez huke ardorik edan behar.

ESTHER.- IXO!

MARTA.- *(Estherri lasaitzeko musutxoak emanez, mutilei hitz egingo die.)*

Lasai. Orain arte ez dik tantarik probatu eta... topa egiteko besterik ez...
ezpainak bustitzeko. Bale? **MIKEL.-**

Beraz, haurrarengatik?

ESTHER.- Zergatik ez hobeto laguntasunarengatik?

(Martak berriro barre egingo du.)

MARTA.- Barkatu azken tragoa izango dela zin dagizuet. Laguntasunarengatik?

LAUROK.- Laguntasunarengatik!

(Topa egingo dute.)